



Dantza eta kantua nagusi pailazoen "Bizipoza" emanaldian. - Haur eta ez hain gaztek primeran gozatu zuten larunbatean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen "Bizipoza" emanaldiarekin. Xirimiri elkartearen 25. urteurrenoko ekitaldiak, herritar eta inguruko herrietako haur eta gurasoak bildu zituen Manuel Lekuona kultur-etxean. Hainbat pertsonaia ezagun izan ziren ikuskizunean, Pupu eta Lore, Panpoxa furgoneta, Txilibito edo Loreto. Beste berri batzuk ere ezagutzeko aukera izan zen, hala nola, Txernobyl-go Igor haur autista. Bi saiotan kantuan eta dantzari jarri zuten aretoa eta momentu batean, aterkiren bat ere ikusi ahal izan zen aretoan. Haien bihurrikeriak egin zituzten bada emanaldi osoan zehar herriko pailazo ezagunek. Hau guztia guztiek norberak izan ditzakeen elbarritasunez ohartarazteko. Baina ikuskizuneko pertsonaiez gain, herritarrek ere izan ziren pailazoekin batera oholtzan. Jalgune elkarteak gazteek "Pausoka, pausoka" eta "Eskuetan" abestiak kantatu eta dantzatu zituzten eta Xirimiri elkarteak lagunak ere "Maite zaitut" abesti famatua dantzatzen ikusi genituen.

3 GIZARTEA Emakume zentroaren irudi eta ekintza berriak

Sexuen elkarbizitzarako emakumeen zentroak filosofia berria du eta pertsonen zein sexuen elkarbizitza bultzatuko du. Aldaketa hau dela eta, irudi berria izango du Emaumeen zentroak, baita ikastaro eta ekintza berriak ere. Ostiralean egin zen berrikuntzen aurkezpena.



4 TTAKUN Munduko dantzak ikasteko saioak

Joxe Rotetak munduko dantzak ikasteko lau saio eskainiko ditu maiatzaren zehar. Ekintza Ttakun K.E.-k antolatzen duen plaza dantza ekimenaren baitan gauzatuko bada ere, herritar guztiei dago irekia. Hainbat herrialdeetako dantzak ezagutu eta hauek gozatzeko aukera izango da. Saioak astearteetan izango dira 20:00etatik aurrera Sasoeta ikastetxeko soinketa gelan.

Ostiralean maiatzaren 2an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Maiatzaren 5ean izango da hurrengo zenbakia zuen etxeetan.

EUROMIKEL'S, S.L.

MKEL'S



N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365401
boxes@euromikels.com
www.boxeseuromikels.com

Hazlo tú mismo

Auto Mekanika BOXES

OFERTA ESKAINTZA

943 360850



Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen, zergatik hainbeste ordaindu ?

Hiru aukera dituzu :
zuk egiten duzu
zuk gurekin ikasiz
guk egiten dugu

DEITU ETA ESKATU PREZIOAK KONPROMEZURIK GABE

Adituak dio



Maider Oiartzabal Dantzaren eguna

Irtsi da aurten ere Dantzaren Nazio Arteko eguna eta honekin batera dantzari eta dantzazaleen ospakizuna!!!!!!

Askotan entzun izan dut jendearen ahotan dantzatzeko ez dakitela. Ezin egiatik urrutiago egon adierazpen hori egiten dutenek, izan ere dantzak mugimenduarekin eta adierazpenarekin zerikusi zuzena du eta zer da ba eguneroko, uneoro egiten duguna? Ba horixe, mugitu eta adierazi, beraz ezin lezake inork esan hori egiten ez dakienik.

Dantza zentzu zabalenean ikusirik, pertsonen barne munduko emozioen adierazpide dela esango nuke. Dantza gizakion bizibidean beti egon izan da. Erritual dantzetatik hasita, gaur egungo antzokietan ikusi ditzakegun ikuskizun sofistikatueteraino. Aitzinean dantzak funtzio sozialak betetzen zituen, dantza bakoitzak bazuen nolabaiteko zer esana edo mezua. Dantza komunitatean, elkarrekin egiten zen. Ospakizunetan edo eta eskakizunetan, erritual moduan. Komunitate horietan dantza adierazpide bezala bizitzen zuten gizaki haiek, ez dut uste dantzan zekiten ala ez galdetzen ziotenik euren buruei. Soilik dantzatu egiten zuten, adierazpenaren gozamenari tokia utziz.

Gaur egungo gizartearen aldiz, dantza ez da berdin bizitzen beste gauza asko bezalaxe. Gaur egungo gizarte, konpetitibo honetan, denak "onenak" izan behar dugun gizarte honetan, norbanakoaren baloreak, giza baloreak pikutara bidali dituen gizarte honetan, zenbaitez dantzatzeko ez dakitela pentsatzera iritsi dira eta are gehiago nahiz eta izugarri gustuko izan, dantzari uko egitera ere iritsi direnak badira. Dantza ez da soilik "profesional perfektuek" egin dezaketen adierazpen artistikoa. Dantza ez da inorena. Inork ezin diezazkioke mugak jarri, dantza izatekotan gizakion ondarea da. Denon eskura dagoena, nahi duenak, nahi duenean eta nahi duenarekin disfrutatu dezakeena.

Aska ditzagun ba gure barrenak eta jar gaitetzen denok dantzan!!!

Dantza dezagun elkarrekin bizitzaren dantza!!!

Talaiatik

Dantzak batu egiten du

Duela ez asko nazioarteko egunen inguruan idazten genuen. Orduan antzeerkiaren nazioarteko eguna ekartzen genuen gogora eta Kukukako kideetako batek idazten zuen adituaren zutabea.

Honetan berriz, Dantzaren eguna izango da bihar apirilak 29, eta adituaren tarte bate du Maider Oiartzabal dantzari eta Kukukako dantza irakasleak.

Iaz lehenengoz Kukuka antzerki eta dantza eskolak erabaki zuen dantzaren eguna ekitaldi xume batekin ospatzea. Kalean egitekoak ziren baina azkenean Manuel Lekuonan egin behar izan zuten. Oholtzan hainbat dantza eskaini zituzten haur eta gazteek eta inprobisazio labor baina jostagarria ikusteko aukera ere izan genuen bertaratuakoei.

Ekimen honetan ez zen falta izan egun honetarako

espreski mundu mailako dantzari edo koreografo ezagun batek prestatutako manifestua. Lin Hwai-min koreografo taiwandarraren idatzia izan zen iazkoa eta tartean "dantzak elkartu egiten du jendea" zioen testuak.

Hain juxtu, dantzak batu egiten duela erakutsiko dute aurten. Herriko taldeak II. Dantza Topaketak antolatuta ditu eta ez dira Kukukako dantzariak bakarrik egongo. Herrian badira beste dantza talde eta dantzariak eta hauekin batera osatuko dute emanaldia, Erketzekoak, Semblante Andaluzeko Zambra, Amaia Gonzalez Caballero, saharaiar dantza talde bat eta afrikar dantza izango dira.

Horrela herrian dauden jatorri ezberdinetako dantza eta doinuez gozatzeko aukera izango da eta aniztasunean herri aberatsa dugula beste behin erakutsi.

Hitz eta pitz

Dantza egitea edo ikustea gogoko duzu?



Carmen Carracena

Nik orain adin bat dudalako, baina ospakizunetan ederki dantzatzeko dut. Gazteetan ere. Institutuan nengoela dantza klasikoa egin nuen. Baina ikasketak zirela eta, utzi behar izan nuen. Beti izan dut gustuko. Gaineran iloba bat dut Sevillan dantza ikasten ari dena eta beti dabil, ni animatzen. Ikuskizunetara ere joaten naiz noizbehinka, baina gero eta gutxiago.



Maider Alkorta

Dantza beti izan dut gustuko. Gaztetan dantza egiten nuen. Orain nire alaba zaharrenek euskal dantza egiten du eta gustuko du. Gerora dantza garaikidea egin nahi du. Beste biek ez dakit, ikusi beharko. Oso polita eta egokia dela iruditzen zait gorpuzaren garapenerako. Dantza ikustea ere gogoko dugu, baina orain arte ezin izan gara joan. Baina asteartean Topaketan izango gara.



Joxe Zapirain

Ez naiz oso dantza zalea. Gaztetan apenas joaten ginen erromeri edo dantza lekuetara eta orain gutxiago. Ni Añorgakoa naiz eta Hernani aldera joaten ginen gazteetan, bertan ere ez zegoen zaletasun handirik. Nire familian ere ez dago zaletasun handirik. Bilobak txikiak dira oraindik eta ikusi beharko. Hala ere, batzutan dantza ikustera joaten naiz.



Paqui Gera

Oso gustuko dut dantzatzea eta dantza ikuskizunetara joatea. Ez dut dantza ikasketarik egin, gazteetan abesbatzean kantatzen nuen. Baina nire alabak balleta egin zuten 13 urte zituenera arte, eta ikustera joaten nintzen. Hala ere, ez dut aukera askorik dantzatzeko, ospakizunetan eta jaietan dantzatzeko soilik. Senarrari ez zaio asko gustatzen.

Iruditan



Aurrezki Kutxa Municipal eta Probintzialaren inaugurazioa Lasarte-Oria Tomas Fernandezen bildumatik hartua.

Euskal dantzetatik haratago

Euskal dantza dira gure kulturaren parte. Edozein festa edota harrera ofizialean agurra, arku dantza... urtetik-urtera hauek zaletu diren haur zein heldu kopuruan gora beherak izan dira herrian baina beti izan da aukera ikasteko. Gure dantzak ikasi eta ikustea gustatzen zaigun bezala, jatorri ezberdineko jendea bizi da Lasarte-Oria eta kultura ezberdinetako parte garrantzitsuenetako da dantza. Horrela sevillanek esaterako gertukoak ditugu baina baita bizilagun berriek ekarritako afrikar doinuak adibidez.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Ezzagire, Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Ione M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

EMAKUMEEN ZENTROA

Irudi eta ekintza berriak

Ikastaroetan izena ematea gaur eta bihar egin ahalko da

Lasarte-Oriako Emakumeen zentroak filosofia aldaketa bat izan du eta honen erakusle, zentroaren irudi eta ekintza berriak izango dira. Ostira-lean aurkeztu zituzten Emakumeen zentroan burututako agerraldian.



Disenatzaileak, Pablo Barrio alkatea eta Maria Salsamendi teknikaria aurkezpenean.

TXINTXARRI

Sexuen elkarbizitzarako emakumeen zentroaren irudi berria aurkeztu zuen Pablo Barrio alkateak, Maria Salsamendi berdintasun teknikaria eta Arantxa Zulaika eta Ainara Altuna disenatzaileekin batera.

Pablo Barrio alkateak azaldu zuenez, Emakumeen zentroak filosofia aldaketa bat izan du, "non elkarbizitza eta pertsonen nahiz sexuen eskubideak hartzen ditugun ardatz nagusi gisa".

Aldaketa hori papereratu nahi izan du Udalak eta herriko bi artistek Arantxa Zulaika eta Ainara Altunak zentroaren irudi berria diseinatu dute.

Hauen hitzetan, Emakumeen zentroak atek irekiak dituela erakutsi nahi izan dute eta horretarako, adin, sexu eta kultura ezberdinetako pertsonen ilustrazioak egin dituzte, "hauek jarrera dinamikoak dute eta esteriotipoetatik aldentzen dira".

Gainera, Emakumeen zentroan erabiliko diren euskarri

guztien esku liburua egin dutela ere azaldu zuten.

Ikastaro berriak

Maria Salsamendi teknikariak, berriz, Emakumeen zentroko egitarauan egongo diren berrikuntzak azaldu zituen.

Astean behin egiten diren yoga, bitxiak, bio-dantza, antzerkia edo kantua ikastaroez gain, eskaintza zabaldu eta ikastaro teknikoagoak eta epez laburragoak direnak eskainiko direla eman zuen jakitera, hala nola, "Emakumeak historian", "Hezikidetzat, umeen heziketaren gakoak", "Oinarriko Internet", "Jendearen aurrean hitz egin dezagun" edo "Sexualitatea nola landu haurrekin".

Izena ematea

Ikastaroetan parte hartzeko aurreinskripzio egunak gaur, apirilak 28 eta bihar, apirilak 29 dira.

Ikastaroen prezioak edo informazio gehiago Udaleko web orrian, Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroan edo [emakumezentroa@lasarte-](mailto:emakumezentroa@lasarte-oria.org)

oria.org helbide elektronikoan eskuratu daiteke.

Beste ekintzak

Era berean, Emakumeen zentroan genero ikuspegia lantzeko bideo-foruma egingo da hilabete bigarren asteazkenean.

Hitzaldiak ere izango dira, "Zoru pelbikoaren indartzea" eta "Etxeko laguntzaile ezagutu itzazu zure eskubideak".

Azkenik, zentroa erakusketa gune bihurtu nahi dutela ere aipatu zuen Salsamendik. Horregatik, Gehitu elkarteak sustatuko "Homosexualak historian" erakusketa ere izango da ikusgai zentroan maiatzaren 16tik ekainaren 27a arte.

Erabiltzaileen protesta

Bestalde, agerraldiaren ostean, emakumeen zentroko erabiltzaileen batzordeak aurkeztutako egitarauarekin bat ez datorrela jakin arazi zuen. Emakume taldeak eskaera handi zuten ikastaro batzuk murriztu eta batzordeari emandako hitza bete ez izana salatuz.

MUGIKORTASUNA

Auto edo moto azterketak dohain

MAPFRE aseguru-etxearen "Cuidamos tu auto" autoen unitate ibiltaria astearte eta asteazkenean izango da Lasarte-Oriako Ola Kalean.

Honetan herritarrek haien auto edo motorren azterketa mekanikoa egin ahalko dute goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, asteartean 15:30etik 19:30era eta asteazkenean 15:00etatik 20:00etara.

Doako zerbitzua izango da eta hurbiltzen diren herritarrek gainera opari bat jasoko dute.

HAUSTESKUNDEAK

Mahai osaketa



Ostira-lean, Lasarte-Oriako Udaltzarrak ez ohiko bilkura egin zuen. Honetan maiatzaren 25ean, Europar Parlamentuko Hauteskundeetako mahaietako kideak izendatu ziren.

Izendapena hurrengo egunetan jakinaraziko zaie mahai kideei. Mahaietan egon ezin diren herritarrek jakinarazpena jaso ostean, hamar egun dituzte helegitea aurkezteko.

LANGILEAREN EGUNA

Manifestazioarako deialdia

LAB sindikatuak ostegunean eskaintako prentsaurrekoan, maiatzaren 1ean Hernanin 12:00etatik aurrera, "langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan" lelopean egingo den manifestazioan parte hartzeko deialdia egin zuen.

Honetan hazkunde ekonomikoaren irizurra eta erabakitze-ko eskubidearekin egin nahi duten iruzurra salatuko dituzte.

LAB-eko kideen hitzetan, "Burujabetza ekonomikoa, soziala eta politikoa aldarrikatzen dugu. Eta ez da etorkizunari begira egiten dugun aldarrikapena, momentu historiko honi aurre egiteko bidea dela planteatzen dugu. Gaurko egoera larriari buelta ematea ekarriko duen hautu politikoa bakarra".

SAN PEDRO JAIK

Haur danborradan izena ematea

San Pedro jaietan haur danborradan parte hartu nahi duten 5 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek gaurtik aurrera eman dezakete izena Gaztelekuan.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, kantinera edo gastadore plazarik ez duten 5 eta 6 urteko haur guztiek baseritar jantzita parte hartu ahalko dute.

Parte hartu nahi duen guztiak izena emateko fitxa bete beharko du Gazteentzako Informazio Bulegoan, Gaztelekuan, asteartetik ostiralera 12:00etatik 21:30era eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Azken eguna maiatzaren 15a izango da.

Izema emateko epea itxi ostean zozketa egingo da maiatzaren 19an, 12:00etan Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan. Emaizta zerrenden bidez emango da ezagutzera maiatzaren 22an, kultur-etxeko 2. solairuan dagoen iragarki-taulan.

MUSIKA TOPAKETA

Musika barrokoa ezagutzen

Kontzertu berezia izan zen ostira-lean Ama Brigitaren komentuan. Danok Kide elkarteak antolatzen dituen IX. Musika Topaketei esker, denboran atzera egin eta barrokoan murgildu ziren kontzertuko entzuleak.

Antonio Pascual eta Francisco Herreroen eskutik, klabinbalo eta biolinaz gozatzeko aukera izan zen. Maisuki Bach-en hiru lan bakarka zein batera eta bis modura Ren konposatutakoko Suitaren Aria eskaini zituzten. Ikusleek ederki eskertu zuten bi musikariren lana.



Sole Garroren mendeurrena ospatzen

1914ko apirilaren 18an jaio zen Sole Garro Eizmendi, Orián eta mendeurrena ospatzeko senide guztiak bildu ziren apirilaren 18an Sasoa eta auzoko San Marcial kaleko etxean, Soleren egungo bizitokian.

Pablo Barrio alkatearen bisita jaso zuen herritarrek, "Zorionak zuri" kantatu zioten eta xanpainarekin topa egin zuten, ez baitira egunero 100 urte betetzen.

Egoera onean dago Sole Garro, apain, argi, umoretsu eta inguruan gertatzen den guztiari adi. Pozarren erantzun zituen kazetariaren galderak eta 100 urtez bizitzeko sekretua zein den galdetuta "ardo kopatxo bi, bat eguerdian eta bestea gauean", erantzun zigun.

Haren alabek kontaktu zuten betidanik izan dela pertsona



Sole Garro lora sorta altzoan duela, senidez inguratuta.

"baikorra" eta sinetsita daude bizitzarekiko ikuspuntu horrek asko lagundu diola osasuntsu zahartzen.

Ez baita erraza izan Soleren bizitza. Lan asko egin zuen gazte-gaztetatik Brunet Fabrikari, 13 urte zituenetik hain zuten.

Isidro Agirrekin ezkondu zen 1942. urtean eta gerraosteko urte zailetan Zaragozara joan behar izan zuten erbeste-ratuta. Bost alaba izan zituzten: Joaki, Marian, Xole eta zenduta dauden Carmen eta Consuelo.

Munduko dantzak ikasteko aukera

Maiatzean zehar Ttakunek antolatzen duen plaza dantza saioetan munduko dantzak

Maiatzeko plaza dantza saioetan munduko dantzatan trebatzeko aukera izango da Joxe Rotetarekin. Ohiko saioak guztiz ahaztu gabe, munduan zehar dantzatzaren diren hainbat pieza herriko erakutsiko ditu Rotetak. Saioak ohi bezala asteartean izango dira 20:00etatik 21:00etara Sasoetako soinketa aretoan. Saio hauek irekiak dira eta nahi duten herritarrek hartu ahal izango dute parte.

TXINTXARRI

Munduko dantzak ikasteko aukera izango da maiatzeko asteartean. Ttakunek antolatutako plaza ikastaroaren baitan hilabetez herrialde ezberdinetako dantza tradizionalak ikasteko aukera izango da.

Joxe Roteta izango da irakaslea eta berak adierazi moduan, batez ere Europako herrialdeetako dantzak izango dira irakatsiko direnak "nagusi Grezia, Frantzia, Alemania, Eskozia, Irlanda, Portugal, Balkanetako herrialdeetako baina baita Mexiko eta Turkia bezalako herrialdeetako batzuk ere".

Dantzatzeko errazak

Euskal dantza asko ikasteko denbora behar izaten dela dio

Rotetak baina kasu honetan, "oso dantza politak eta errazak dira, ordu batean sei dantza ikasteko aukera izango da".

Dantza tradizional hauek batez ere borobileen dantzatzaren dira "bakar batzuk bikotea egitekoak dira, baina kasu hauetan ere, bikotea aldatzen goaz dantzak aurrera egin ahala beraz, esan daiteke taldeka dantzatzekoak direla denak".

Joxe Rotetak Kantabriar La Perezosa atsedean etxean aste-buru batean egindako munduko dantzen ikastaroan zaletu zen. Han ezagututako jendearekin hemen talde bat osatu nahian irakasle bila hasi eta Erreterian elkartzen hasi ziren Patxi Monteroren gidaritzapean.

Egun Donostian talde bat gidatzen du Joxe Rotetak eta



Santo Tomas egunean herrialde ezberdinetako dantzatan aritzeko aukera izan zen.

azken urteetan, ikastaro ezberdinetara joanda trebatzen jarraitu dela dio.

"Lehenengo aste-buru hartan dantza batzuk ikasi genituen, musika eman eta bideo batzuetan dantzak ikusita ikastera animatu gintuzten".

Danzas sin Fronteras jaialdira bost urtetan joan da Roteta eta honetan ere ikasteko aukera izan duela dio.

Ikastaro irekia

Ikastaroari dagokionez, lau saiotan asko ikasi ahal izango dela dio eta "dantza hauek ikasteko ez da aurretik dantzaria izan behar edo dantza ezagutzarik behar. Edozeinek egin ditzake".

Ez da aspertzeko tarterik izango izan ere, dantza berri hauek ikasteaz gain, taldeak plaza dantza batzuk errepa-

satzeko tartea hartuko du ekainerako ez ahazteko.

Ikastaroa ohikoa den legez, 20:00etatik 21:00etara izango da Sasoeta ikastetxeko soinketa aretoan.

Honetan parte hartzea irekia da eta antolatzaileek herritarrek animatu nahi dituzte honetara gerturatu eta beste herriko dantzetaz goza dezaten.

Erromeria eguna Azkorten igandean

Santa Krutz egunaren ondorengo igandean antolatu ohi du Lasarte-Oriak erromeria. Aurten maiatzaren 4an izango da ospakizuna eta urtero legez, hainbat ekintza antolatu dira erromeria eguna giro onean igarotzeko.

10:00etan erromeriarri hasiera emango zaio. 11:00etan Azkorteko ermitan ohiko meza izango da. Honetan Alboka Abesbatzak hainbat kanta eskainiko ditu.

Besteak beste, ermita kanpoan Ane Labaka eta Beñat Iguaran bertsolarien jarduna eta harrijasotzaile eta aizkolarien arteko erronkak ikusi ahal izango dira.

Amalur trikiti eta pandero eskolakoak ere bertan izango dira eta haien musikarekin erromeria girotuko dute nahi duenak dantza egiteko aukera ere izan dezaten.

Hamaiketako egiteko aukera izango da, aterpean jarri ohi den tabernatxoan salda, pintxo eta edariei esker. 14:30ak arte izango da jai giroa Azkorten.

Erromeria Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen du eta



Herri kirolak ikusteko aukera izango da ohi bezala Azkorte ermitan.

Udaleko Gazteria, Festak eta Kiroletako Batzordearen laguntza du.

Autobusa

Urtero moduan, ezin izango da kotxez ermitaraino hurbildu.

Hauek aparkatzeko erabiltzen zen lekuri ez dago egun horregatik Urnieta bide-

ko bidegurutzetik gora ezingo da kotxez igo.

Hartara, autobusa jarriko da goizeko 9:00etatik aurrera Lasarte-Oriako erretiratuen elkartetik.

Honek ordu-erdiro egingo ditu irteerak Biyak-Batetik eta goiz osoan zehar gora eta behera ibiliko da. Ibilbidea doan izango da.

Herriko presoak gogoan



Ostiralean, hilabeteko deialdiari erantzunez hainbat herritar bildu zen euskal presoek eskubideak aldarrikatu, preso larrien askatasuna eskatu eta dispersio politikak salatzeko.

Okendo plazan egin zen elkarretaratzean, azken hilabetean hasitako ekimenari jarraipena eman zitzaion, herriko presoek berri ematea. Lehengo hilabetean Ibon Fernandez Iradiren egoeraz mintzo ziren; aste honetan, berriz, Rafa Diez eta Jabi Gallagaren berri eman zuten haien senide eta lagunek, "hurbiletik jaso nahi baitugu haien berri".

Ekitaldia hasi baino lehen, hurbildu ziren pertsonen hitzak bildu eta presoek bidaliko zaien eskutitz mosaiko bat

osatuko dutela adierazi zuten antolatzaileek. Bestalde, Ibon Fernandez Iradiren zigorra etetea eskaera maiatzaren 12an aztertuko dela ere eman zuten jakitera.

Jarraian, Algortatik etorri ziren Jabi Gallagaren ama eta anaia Toñi eta Mikel Kordoban bizi duen egoeraz mintzatu ziren; Naïke Diez Rafaren semeak aitak idatzitako eskutitza irakurri zuten eta bisitara joandako bi presoek lagunek ere haien bizipena eskaini zuten.

Bilkura amaitzeko, Jabi eta Rafari zuzendutako bertso batzuk ere entzun ahal izan ziren.

Aurreratu zuten, hurrengo hilabetean, Xanti Arrozpide eta Aitzol Iriondo izango dira gogora ekarriko dituztenak.

Xumela Katalunian enbaxadore

Katalunian lau egun egingo ditu Montetxio eta Olagarro koruekin batera

Herriko Xumela koruak Euskal Herriko mugak gaudituz eta Zarauzko Montetxio koruko zein Hondarribiko Olagarro koruko kideekin batera Kataluniara joango da. Asteazkenean abiatuko dira Girona aldera eta bertan igaroko dituzte lau egun. Kanta artean, herri ezberdinak bisitatuko dituzte.

TXINTXARRI

Xumela koruak euskara eta euskal kultura zabaltzeko helburuarekin egiten du lan "modu alai eta irekian".

Astero elkartzen dira 50 lagundik gora elkarrekin kantatzeko eta ondo pasatzeko. Azken egun hauetan maizago aritu dira abesten, izan ere, oraingoan Euskal Herriko mugak zeharkatu eta Zarauzko Montetxio koruko zein Hondarribiko Olagarro koruko kideekin batera Kataluniara doaz ehundik gora lagun. Asteazkenean, apirilaren 30ean abiatuko dira Girona aldera eta bertan igaroko dituzte lau egun.

Azken asteetan asko izan dira Xumelak egindako entseguak. Katalanez ere zerbait ikasi dutela esan digute.

Kataluniako egungo egoera Assemblée Nacional Catalanako kideen eskutik jaso ahal izango dute eta honetaz gain, egitarau estu batez gozatzeko aukera izango dute.

Maiatzaren 1ean, Lladó herrian izango dira eta bertako eromerian parte hartuko dute kantari.

Maiatzaren 2an, Dalí museoaz gozatu ondoren Girona hiriburuan bisita gidatua egingo dute kantuekin girotuz.

Maiatzaren 3an, Besalúko Peñy Blaugranakoekin (Bar-



Entseguak gehitu dituzte azken asteetan katalanez ere hainbat kanta ikasteko

zelona futbol taldeko jarraitzaileak) dute hitzordua eta bazkaria, sardanak, fandangoak eta kantuak partekatuko dituzte.

Gironako Banyoles herrian hartuko dute ostatu eta bertakoei ere kantuak par-

tektzeko aukera izango dute koruko partaideek.

"Espreski bi kantu katalanez ikasi ditugu, egun hauetan haiekiko maitasuna haien hizkuntzan helarazteko asmoarekin".

Lasarte-Oriako eta Euskal

Herriko enbaxadore izango dira egun hauetan Xumelakoak eta aipatu digutenez, sekulako ilusioarekin doa taldia Kataluniara.

"Abestiak dioten moduan "Bizitza kantu bat da" sinestuta".

Bertso-solasaldiak Egañarekin eta bertso-kletaren geldialdia

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, Ttakun eta Earra! Bertso eskolak, elkarlanean, bertso-solasaldi ekimenak gauzatzeko dute Lasarte-Orian.

Andoni Egañak gidatuta, bertso-lariaren inguruan zaleek dituzten kezkek, zalantzak edota Egañak berak bertso-lariaren inguruan izandako esperientziak izango dira hizpide, Arrieskalletan zein Xirimiri elkarteetan egingo diren solasaldietan.

Bertso-lariaren eta bertso sorkuntzaren inguruko lehenengo solasaldia Arrieskalletan egingo da, maiatzaren 8an, 20:00etan. Giro goxoa eta parte hartzailea sortzeko,

gehienez 25 laguneko taldea osatuko da. Horregatik, aurrez, Ttakunen izena eman beharko da.

Hizketaldia animatzeko pintxoak eta edatekoa egingo direla azaldu dute sustatzaileek. Kasu honetan, bertso sorkuntza beste modu batera ezagutu ahal izango dute solasaldi ireki eta parte hartzaile hauetan izena ematen duten herritarrek.

Uda bitartean hainbat solasaldi egingo dira, guztiak Andoni Egañarekin. Bertso-gintzatik haratago, bertso-lariaren gustuko dutenek aukera ederra izango dute zarauzitarra gertuagotik ezagutzeko.

Bertso-kleta

Bestalde, Pazko astelehenean, Jalgi Kafe-antokian bertso saio berezia izan zen, Bertso-kleta ekimenak Lasarte-Orian geldialdia egin bai-tzuen.

Iban Garro, Xabi Maia eta Eneko Fernandez nafarrek Ane Labaka, Beñat Iguaran eta Unai Muñoarekin batera euskarak Nafarroan bizi duen egoeraren berri eman zuten bertsoen bitartez. Gai jartzaile lanetan, Jokin Labayen izan zen.

Jalgira hurbildu ziren herritarrek euskarak Nafarroan bizi duen egoera ezagutu ahal izan zuten. Lehenik, Lodosatik etorritako guraso batek Nafarroako hegoaldeko



Bertsolari nafarrek Earra! bertso eskolako kideak izan zituzten lagun.

gurasoek beren seme-alabek euskaraz ikasteko dituzten zailtasunen berri eman zuten; ostean, bertso-lariaren saioan.

"Euskaraz bizi eta ikasi" ekimenak bultzatuta, apirilaren 19an Lodosan bizikletak hartu

eta zazpi egunetan Euskal Herriko txoko ezberdinak zeharkatu dituzte egitasmo honetan parte hartzen duten bertsolari nafarrek. Apirilaren 25ean Iruñeara iritsi ziren eta bertan jaialdi handia egin zuten.

ALCAR VENTANAS
Zuregandik hurbil
Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

www.facebook.com/VentanasAlcar

Jarraitu gure Facebook orriari gure jarraitzaile artean. Irailtey pasako gara orriari berritzen.

Me gusta

PVC, aluminio eta zubi termikoaren hustura, lantzen ditugu

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar

- Leihoak
- Ateak
- Itxiturak
- Armariuak
- Barandak
- Portalak
- Erakuslehoak
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama finko eta orientagarria
- Portisianak
- Saretak

- Sabai-Leihoak
- Toldoak
- Errezel-Hormak
- Beirateria orokorrean
- Duxako manparak
- Sarrera ate korazatuak
- Konposite materialekin horma estaldurak
- Kartel komertzialen instalakuntza
- Gortinak

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa (Lehenko Doble J)

TAILERRA
Ibaiondo, 4 erdisotoa 5-A
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa

IGERIKETA.

Marka pertsonalak hausten

Pasa den apirilaren 5ean, Buruntzaldea IKT-ko parte-hartze ibilbideko igerilariak ligako bosgarren jardunaldia izan zuten Altzan. Euskadiko gutxieneko marka bat eta Gipuzko beste bat egin bazituzten ere, beste horrenbeste lortzekotan ere izan ziren igerilari gazteak.

Jardunaldi honetan parte hartzen Leire Carcedo, Enara Arruti, Amaia Izagirre, Maialen Casado eta Unai Irigoras izan ziren. Guztiak txukun aritu ziren igeri egindako proba guztietan marka pertsonalak egin eta "orain arteko entrenamenduen fruituak jasoz".

Leire Carcedo 50 m. bular eta 200 m. estiloak proban aritu zen eta bietan bere marka hobetu zuen. Lehendabiziko frogan sailkapeneko hirugarren postua eskuratu zuen eta Euskadiko Txapelketarako gutxieneko marka lortu zuen eta beraz, Udako Euskadiko Txapelketan lehiatzeko txartela eskuratu zuen.

Igeri egindako bigarren proban, 200 m. estiloetan, 2 segundogatik ez zuen Gipuzkoako errendimenduko ibilbidean aritzeko txartela lortu. Baina 50 m. tximeletako pasean marka pertsonala lortu zuen.

Enara Arruti ere bi proba hauetan lehiatu zen. Lehenengoan sailkapeneko lehen pos-

tua lortu eta bere marka pertsonala hobetu zuen.

Bigarrenean, hirugarren postua lortu zuen eta marka pertsonala egiteaz gain, Gipuzkoako errendimenduko ibilbidean aritzeko gutxieneko egin zuen. Eta Leireren antzera, 50 m. tximeletako marka pertsonala lortu zuen pasean.

Amaia Izagirrek 50 m. bular eta 200 m. estiloetan bere marka pertsonalak hobetu zituen. Eta bere kideek bezala, 200 m. estiloetako tximeleta pasean ere marka pertsonala egin zuen; gerora, 4x50 m. tximeletako erreleuban berriro hautsiko zuena.

Maialen Casadok 50 m. bular proban marka pertsonala lortu zuen. 200 m. estiloetan deskalifikatua izan zen bular estiloko biraketa gaizki egiteagatik. Pena bat izan zen, egindako denborarekin Gipuzkoako gutxieneko lortuko zukeelako. "Akats hori zuzenduta ziur hurrengo batean gutxieneko lortzeko moduan izango dela", adierazi du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Unai Irigorasek 200 m. estiloetan bere marka nabarmen hobetu eta 50 m. tximeletako pasean ere marka pertsonala egin zuen.

Saioa amaitzeko, neskek 4x50 m. tximeleta errelebu izan zuten eta laugarren postua eskuratu zuen.

ATLETISMOA.

Atleta gazteak ere indarrez

Gipuzkoako txapelketetan hiru domina eskuratu dituzte

Lasarte-Oriako kadete, infantil eta alebin mailako atleta gazteak ere fin ari dira lehian. Alebin eta infantilek, aire libreko Gipuzkoako txapelketan izan dira eta hiru domina lortu dituzte; kadeteak, berriz, pistako denboraldiari agur esan eta aire libreko prestatzen ari dira.

TXINTXARRI

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko alebin eta infantil mailako atleta gazteek Gipuzkoako txapelketako hiru jardunalditan parte hartu dute martxo eta apirilaren zehar, Errenteria, Irun eta Eibarren.

Emaitzak onak izan dira. Atleta asko joan dira lehiatzen eta hiru brontzezko domina eskuratu dituzte, Aiora Belartietak jauzi-hirukoitzeko proban, Xalba Otxandorenak 80 m. hesi-lasterketan eta Ainhoa Herederok 60 m. lasterketan.

Amaia Andres entrenatzaileak aipatu digunez, orain eskolarteko lehiaketa hasiko da, "guri gehien gustatzen



LOKEko kadete mailako atletak Amaia Andres entrenatzailearekin. A.ANDRES

zaigun denboraldiko zatia da. Landaberri bezala lehiatuko gara eta ea aurrean hiru edo lau talde ateratzeko gai garen".

Gero proba konbinatuak egingo dituzte eta maiatza bukaeran amaituko dute denboraldia.

Iazko emaitza hobetzea zaila ikusten du entrenatzaileak, "Gipuzkoako txapelketan izan baikinena alebinetan, baina berriro ere izan gaitzeko urte bat zaharragoak baitira eta esperientzia gehiago baita".

Hala ere, emaitzak adin hauetan baloratu ezin direla aipatu digu, "beti egiten du ilusioa dominak jasotzeko, egindako lanaren fruitua baitira, baina talde-dinamikan

sartzeari eta taldean giro ona izateari garrantzia handiago ematen diot. Zentrokako txapelketan hiru edo lau talde atera eta datorren urtean erdiak baino gehiago atletismoa egiten jarraitzen badu elkarte bezala helburua lortu dugula esan genezake".

Kadeteak ere ederki

Bestalde, kadete mailako pista estaliko balorazioa oso positiboa ere egin digu, "hamalau urteko hamabi gazte gurekin entrenatzen hasi ziren irailan eta Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan lehiatzera iritsi dira denbora gutxian".

Orain aire libreko denboraldia hasiko dute, hurrengo asteburuan esate baterako, Gipuzkoako txapelketa.

ERRUGBIA.

Errugbiaz gozatzen

Jubenil taldearen bigarren postua Donostian

Apirilaren 5ean, LOKEko gimnastek Donosti Gimnasia Erritmikako Klubaren XXV. urteurrenako Torneoa parte hartu zuten. Altxako kiroldegian banakako, zein taldekako lehiaketa izan zen eta LOKEko jubencil taldea lehiatu zen emaitza paregabea lortuz, bigarren postua.

Maila honetako txapelketan Gipuzkoa, zein Bizkaiko 6 talde izan ziren lehian eta herriko taldeak borrekin egin zuten lan. LOKEko entrenatzaileak Maite Ruedak aipatu digunez, talde jubencil lan ederra egin zuten eta ez zuten akatsik izan.

Ondorioz, 8,967 puntu eman eta bigarren postua eskuratu zuten. Lehen postutik ehuneko gutxira geratu zen, 33 ehuneko. Hernaniko taldea izan zen garaile, 9



LOKEko talde Torneoa lortutako trofeo eta dominekin. LOKE GIMNASTIKA

punturekin eta Tolosa izan zen podiuma osatu zuena.

LOKEko entrenatzaileak oso pozik daude taldeak egindako lanarekin eta lortutako emaitzarekin.

Orain Gipuzkoako txapelketa prestatzen ari dira maila desberdinetako gimnastak. Honetan ere lan ona egin eta gimnastaren bat lehen postuetan egotea espero dute.

Asteburuan, Kirol gunean Errugbiaz gozatuko aukera izan da.

Larunbatean euria lagun, Euskal Ligako senior mailako Babyauto Zarautz eta Unibersitario Bilbao RT-ren arteko norgehiagoka ikusi ahal izan zen. Lasarte-Oriako zortzi gazte jokatu zuten partida.

Babyautok garaipena behar zuen. Lehen zatiko azken minutuetan eta bigarren zatian nagusi izanez, ederki lortu zuen helburua. 38-12 irabazi zuen.

Eskolen topaketa

Ilgandean berriz, Errugbi eskolaren txanda izan zen.

Beltzak Ostadar Jalai, Eibar-Arrasate, Irun, Zarautz, Atletico San Sebastian eta La Unica taldeko 100 bat gazte izan ziren kirol gunean.



Ederki borrokatu ziren gazteak.

Partidetan handien antzera, gogor egin zuten lan txikiak. Paseak, meletak eta entsegu politik ikusi ahal izan ziren.

Bukatzean noski hirugarren denboraz gozatu ahal izan zuten guztiek

Beltzak Ostadar eskolako lagunek aipatu digutenez, 14 urte azpiko taldeko Jon Ibisate eta lehenengoz Alex Saletas izan ziren epaile lanetan.

Agenda

Asteartea 29, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Dantza ospatuz

Dantzaren Nazioarteko eguna da asteartean. Hau ospatzeko Kukuka Antzerki eta Dantza taldeak II. Dantza Topaketak antolatuta ditu. Honetan eskolako taldeez gain, herrian dauden beste hainbat dantza taldek parte hartuko dute: saharaitarrak, afrikarrak, Semblante Andaluz elkarteak Zambra taldeak, Amaia Gonzalez Caballero eta Erketz Dantza Taldeak. Sarrera, 2 euro.

ospatzeko, Honduraseko Santa Fe taldea, Banda Blanca eta Pilo Tejadaren emanaldia. Beste hainbat artista ere izango dira jaialdian. Sarrera aurrez, 18 euro; leihatilan, 20 euro.

Erromeria

AZKORTEKO ERMITA

Igandea 04, goiza osoa

Ohitura den lege, Azkorte erromeria antolatuko du Ttakun kultur elkarteak. Meza, bertsolariak, herri-kirolak eta erromeria izango dira honetan.

Berto solasaldia

ARRIESKALLETA ELKARTEA

Osteguna 08, 20:00etan

Bertozale elkarteak, Ttakun K.E. eta Earral bertso eskolak antolatuta bertso solasaldiak egingo dira Andoni Egaña bertsolariarekin. 25 pertsonara mugatutako saioa. Izena ematea Ttakun K.E.-en egin behar da.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 04, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Lego. La película" filma izango da.

Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 04, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Monuments Men" filma ikusteko aukera izango da.



Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 30, 18:00etan

3 eta 5 urte arteko haurrei zuzendutako ipuin irakurketa izango da haur-liburutegian.

Musika

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Larunbata 03

The Garax, Defectos Comunes eta

Kudai taldeen kontzertuaz gozatzeko aukera.

ZULO ARETOA

Larunbata 03, 00:00etan

Bartzelonatik Gus van Sound dj-a etorri eta musika elektronikoa saioa eskainiko du. Sarrera, 8 euro edaria barne.

Igandea 4, 19:00etan

Frantziako Celeste, Revok eta Comity taldeen bira europarraren hasiera. Hardcoreaz gozatzeko aukera aparta.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 03, 23:30ean

Langilearen eguna eta Amaren eguna

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Apirila amaiera arte

Udako Txoko eta Kanpaldien argazkiak ikusteko aukera.

Maiatzaren 5etik aurrera

Patxi Unanueren argazki erakusketa izango da ikusgai.



Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, apirilaren 28an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitzete lekuri gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase orduetan.

Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrak animatzen dituzte honetan parte hartzera.

Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean dituzte saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Sarean

Hutsuneak betetzen euskara ikasi

Euskara ikasleek aditzak, hiztegia, hitzen deklinabidea, etab ikasi behar dituzte. Lan nekeza izan daiteke batzuetan, baina mugikor eta tabletetan izan dezaketen "Hitzen Katapulta" aplikazioari esker, jolastu eta euskal hitzak ikasteko aukera dute.

"Hitzen Katapulta" euskara hutsen da. Helburua, euskara lantzea da modu jolasgarrian. Horregatik, pantaila bakoitzean hutsunez betetako hitzak ikusiko dituzte erabiltzaileak eta letrak botatzen dituen katapulta baten bidez hitzak osatu beharko dituzte. Hitzak osatzeko laguntza ere izango dute jokalariek.

3 maila ezberdin aurkezten dituzte jokoak: mendia, hiria eta hondartza. Maila bakoitzean agertzen diren hitzak maila horren testuinguruarekin bat egingo dute. Guztira 17 pantaila gainditu beharko dituzte erabiltzaileak. Gainera, bakarka edo binaka jokatu daiteke. Beraz, lagunekin lehiatu ahal da. Ea nor osatzen dituen hitz gehien!

"Hitzen Katapulta" Android-erako jokoak da eta Google Play-en eskuragarri dago.

Joko hau Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan du eta Gestionet Multimedia enpresak TXAPELGAMES markapean ekoiztu du.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Amaia Gonzalez Caballero Dantzaria

“Dantzan diziplina behar da”

Europako Txapelketan egindako lan onaz harro dago herriko dantzaria

Europako txapelketatik bi bigarren sari ekarri ditu Amaia Gonzalez Caballero herriko dantzariak Jose Mari Orbegozo bere dantza bikotearekin batera. Aurten saltsa eta pasodoblean eskuratu dituzte emaitza hobereenak baina orokorrean oso pozik daude egindako lanarekin. Urtetik urtera lehia handiago dela dio.

Maidar AZURMENDI

U da garaian izaten dira emanaldi gehienak eta Dantza Eskola, familia eta txapelketak uztaizteaz ez da erraza. Horregatik urteko hitzordu garrantzitsu bezala mantentzen dute Amaia eta Jose Mari Torremolinosen egiten den Europako dantza txapelketa. Aurten ere bertan izandako emaitzarekin pozik daude.

Nola hasi zinen dantzan?

Donostiako kontserbatorioan 10 urtez egon nintzen dantza ikasten. Zazpi urterekin hasi nintzen dantza klasikoan. Betidanik gustatu izan zait dantza, nire gurasoak andaluzak dira eta etxean sevillanak gustatzen zitzaizkidan asko. Hauek dantzatzen ere etxean ikasi nuen, senide eta laguneri ikusita.

14 urterekin udako hilabeteetan Sevillako kontserbatorioan sevillanak ikastera joaten nintzen, teknika ikasteko. Eta garai horretan ere Donostiako dantza eskola batean hasi nintzen areto dantzak ikasten.

Ondoren, Parisera joan nintzen eta bertan dantza irakasle izateko beharrezkoa nuen prestakuntzarekin hasi nintzen. Barzelonako beste dantza eskola bateko ikasketekin uztaizteaz, tituluak eskuratzen joan nintzen.

Nolatan hasten zara txapelketetan?

Hasieratik. 21 urterekin Jose Mari Orbegozo nire dantza bikotea ezagutu nuen eta berak gogo handia zeukan lehiaketetan parte hartzeko. Prestatu eta

bi txapelketetara joan ginen. Egun berean Euskadiko txapelketa zen eta nazioarte mailako beste trofeo bat hemengo eta herrialde ezberdinetatik iritsitako dantzarien artekoa. Biak irabazi genituen.

Txapelketa hori irabazteagatik, Europako sarian parte hartzeraz gonbidatu gintuzten eta horretatik ere, beste lau lehenengo sari eskuratu genituen dantza modalitate ezberdinetan.

Hortik aurrera, txapelketetan murgildu ginen eta gaur arte. Urte asko dira lehian.

Dantzatzeke zer behar da?

Dantzarako diziplina da beharrezkoa. Esfortzu handia eskatzen du eta prestakuntza ordu ariko. Fisikoki ez da bestelako ariketarik egin behar printzipioz, dantza orduak laguntzen dizutelako forma eta fondaolan bestek beste.

Nire kasuan klase ordu asko dira eta horiei gehitu behar ditugu entseguak, emanaldiak etab. baina luzaketak egitea funtsezkoa da eta adibidez, tango pausoak behar bezala egin ahal izateko, ballet klasikoan oinarritzekoak diren barra ariketak egiten ditut.

Txapelketetarako prestatzeko ordu gehiago sartzen ditugu entsaiatzen eta horrek fisiko olean egotea ekartzen du.

Edozeinek egin al dezake dantza?

Bai noski. Dantza oso ariketa ona da haur zein helduentzat. 1a 80 urte arteko ikasleak ditunik. Ariketa ona izateaz gain, pausoak ikasteko koordinazioa landu eta memorizatu behar



Amaia Gonzalez eta bere dantza bikote den Jose Mari Orbegozok ordu asko ematen dituzte dantzak ikasten.

dira. Ondo pasatzen da dantzatzen eta normalean gustagarria den ariketa izanda, errazago egiten zaigu konstantzia mantentzea.

Dantzan hasteko garaian, mundu guztiak esaten du “oso baldarra naiz, ez daukat belarrik...” landu daiteke eta egia da badagoela jendea zailagoa egiten zaiona baina orokorrean bukaeran, erritmoa sartzen da.

Modan dago dantza egitea?

Modak eragin handia du batez ere gazteengan. Adibidez, telebistan Fama bezalako saioek arrakasta izan dutenean ikusi ahal izan dut eskolan bertan. Lehen areto dantzak ikasteko haur talde bat beti edukitzen nuen baina orain dantza urbana, funky eta mota horretakoak eskatzen dituzte.

Europako txapelketan izan zarete. Nola joan da aurten?

Konpetentzia handia egon da. Urtetik urtera gogorragoa da lehia, 30-50 urte arteko kategorian aritzen gara eta dagoeneko Jose Mari 50 urte ditu eta aitortu behar da, finaletan 30 urteko bikoteek gaintutu gaituzte.

Hautatze faseak oso ondo igaro ditugu guztietan lehenengo eta bigarren postuak eskuratuz baina finalean, ia egunero laugarren izan gara eta beste bitan bigarren geratu gara.

Batzuetan irabazi gaituen bikotea ez da izan hobea dantzatzeagatik, estetika asko egiten du. Gainera azken fasean epaileak ez dira aurreko faseetako dantzari profesionalak izaten, telebista munduko jendea izaten da eta gustagarri zaiona bozkatzeko, irudiak haurtzat garrantzia handia du nire ustez.

Saltsa eta pasodoblean lortu ditugu bigarren sariak. Txapelketan, 80 bikote ginen hasieran, hautaketa fasean 30 bat pasatzen ginen eta finaleran 17 bikote lehiatu izan gara.

Emaitzak ikusita datorren urtean zer?

Kantabrian ospatzen den nazioarteko txapelketan izan gara eta lehenengo saria ekarri dugu chachacha-n eta bigarren dantza konbinatuan. Udan emanaldi asko izaten ditugu eta zaila da txapelketetan gehiago parte hartzea. Familia, lana...

Europako hurrengo txapelketara joango zarete?

Ikusiko da baina uste dut baietz. Txapelketako maila ikusita oso emaitza ona da bi bigarren sari ekartzea eta zergatik ez. Hain zuzen, ikasle batek txapelketara joan aurretik galdetzen zidan ea ez ote zen hobeto izango, txapelketen mundutik aldentzea bertara joan eta saririk ez ekartzen hastea baino.

Sari asko lortu ditugu urte guzti hauetan eta ardura ere bada hara joan eta ezer ez ekartzea baina uste dut horrek momentu honetan gure profesionaltasuna ez duela zalan-zaltzen jartzen.

Zaila da txapelketen mundua, esan bezala 30-50 urte arteko mailan aritzen gara eta datorren urtean hau gaintututa izango du nire bikoteak. Niri urte batzuk falta zaizkit 50 betetzeko eta ondo pentsatu beharko dugu zer egin.

Bestalde, Europa mailako txapelketara joateak beste irakasle batzuekin harremanetan egotea ahalbidetzen digu, tendentzia berriak ezagutu... gure lanerako beti da aberasgarria.



LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA



bihe+

Batxilerreko aurrematrikula
maiatzaren 5etik 15era



D.B.H.
BATXILERRA

Zure
au



era



www.instilasarte.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA

Tel.: 943 372 852 / 943 372 277